

## ERRETAULAK

## Arimen erretaula

Erretaula neoklasiko bat da, 1817an Benigno de Moraza arkitektoak Arimen kofradiaren eskariz diseinatu. Bai tailuak, bai goi-erliebea, Mauricio de Valdivielso eskultorearen ?“Payuetako santugilea” izenez ezaguna? estilokoak dira. Multzoak oinplano lineal eta ondo proportzionatuak du, “erretaula-koadroa” tipologiari jarraitzen dio eta gorputz bakarra eta atikoa ditu. Erretaula-buru, Ama Birjina, San Prudentzio ?bitartekari? eta Purgatorioko arimak agertzen diren goi-erliebe bat dago. Marko molduratuak du, eta fuste leuneko eta kapitel korintoarreko zutabeak albo banatan. Koloma horietan bermatuta dagoen taulamenduak apaindu gabeko frisoa du, erlantz hegalduna eta dentikulatuta, eta, erlantzaren gainean, idulki moduko bat erremate gisa. Multzoaren gailurrean, tondo obalatu bat dago, “MISEREMINI MEI/ MISEREMINI MEI/ SALTEM/ VOS AMICI MEI” inskripzioarekin, eta marmolezko aingeruak albo banatan, gazezur hegaldun eta koroatu batek errematuta. Polikromia-lana, Bartolomé Bascok ?Mauricio de Valdiviesoren laguntzailea bera? hartu zuen bere gain. Díaz de Arcautereren arabera, margolaria erratu egin zen kolore kanonikoen erabileran, eta Karmengo Amaren arrea eta zuria erabili ordez, Arrosariokoaren urdina eta karmina erabili zituen. Itxura denez, Arimen kofradiak, lanarekin gustura geratu, eta kofradiako kide gisa onartuz saritu nahi izan zuen eskultorea.



*Egilea: Eskultura: Mauricio de Valdivielso (1760-1822), Arkitektura: Benigno de Moraza, Pintura: Bartolomé Vasco*

*Data: 1817*

*Teknika: Zur polikromatua*

*Neurriak: 563 x 240 x 66 cm inguru*

*Kokapena: Santa Maria Katedrala (Vitoria-Gasteiz), Santiago kapera, egungo Santa Maria eliza*




### Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:

LOPEZ DE GUEREÑU, Gerardo. "Los santeros de Payueta", *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*, 1976, n.º 20, pp. 327-364.

AZCÁRATE RISTORI, José M.<sup>a</sup> de. "Catedral de Santa María (catedral Vieja)". En: PORTILLA VITORIA, Micaela J. et al. *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria: Ciudad de Vitoria*. Vitoria-Gasteiz: Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, tomo III, 1968, p. 112-113.

TABAR ANITUA, Fernando. *Vitoria neoclásica*. Vitoria-Gasteiz: Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 1986, p. 18.

TABAR ANITUA, Fernando. "Neoclásico". En: GONZÁLEZ DE SAN ROMÁN, Miguel (Dir.). *Vitoria-Gasteiz en el Arte*, vol. II, Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco, Diputación Foral de Álava, Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 1997, pp. 492-493.



## Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García  
Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba  álava  
foru aldundia diputación foral

-k finantzaturako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:



[arte.catedralvitoria.eus](http://arte.catedralvitoria.eus)

Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak  
Tel. 945 255135  
[www.catedralvitoria.eus](http://www.catedralvitoria.eus)

Bisitarien zentroa



Santa María kantoia 3  
01001 Vitoria-Gasteiz